

2004 - azaroa
7. zenbakia

HAU → @ HAU ←



euskaldunon konpartsaren aldizkaria

www.haupittuhau.org webgunean bisita gaitzakezu

Hau txupinazo mundial hau!



Hau...Hauren azken alea daukazu esku artean. Labetik atera berria!


Hau...Hau honetan gai interesgarri asko jorratzen dira: Aste Nagusi mundialaren informazioa, konpartsero eguneko kontuak, Uribarriko esaera zaharren txapelketa,... Eta gainera, atal berriak aurkituko dituzu, "Marrazki-loaren bihotza", besteak beste.

Bestalde, mendeku txikien txokoa berreskuratu dugu, kar, kar, kar...

Ez "eulitu", e!



Konpartsakide eguna (eta batzuen gaua)



Patxaranaren eraginez Astrabu herrien arteko harremanak estutu gurean

Eguerdia zen. Joxemi eta Txomin, Guarniñanoren lekua hartuz, pintxoak egiten hasi ziren. Bitartean, *Briko-mania girls*-en taldeak (Usua, Aintza, Zelia, Irantzu, Josu, Peio,...) dekorazioa prestatzera ekin eutsen.

Gero ba... hasi da zirkue: mahairik ez, lekuik ez, aulki pare bat; oin beltzen eran jan behar gendulakoan, (Joxemi pozpozik), dana konpontzen hasi zen, mahaiak, aulkiak, auskalo non lapurtuak (barkatu, eskatuak).

Gero bazkaria: pasta eta entsalada, alkoholari ondo eusteko edo? Eskerrak geure sukaldari, Pittu, Monika... eta beste baztuk.

Bazkaltzean, gure umeak (Aratz, Joxemi, Kike...) umeketan hasi ziren. Ordu-rako, konpartsakide berriak kezkatzen hasiak ziren. Aste Nagusian ziurtatu eben nahiko zoro gauzela!

Horren ostean: Patxarana! Eta horren eraginez... betikoa: dantzak, kantuak, ur-guda gehiago, Karmele urez blai,... Bere aldetik, Leroy Astorkiza herrien arteko harremanak estutu gurean eta bere ingelesa (eta frantsesa?) hobetu nahian aritu zan; zorritzarez arrakastarik gabe. Eutsi gogor motel!

Mozkorraldiaren lainoen artean zazpi kaleetan tabernaz taberna ibili ginen, eta hortik Santutxuko jaietara. Hor kronikalariak amore eman eban, eta galdu ostean etxerako bidea hartu eban. Baina, zurrumuen arabera, Santutxun danetarik izan zen: dantza gehiago, kantu gehiago, edari gehiago, eta gehiago, eta gehiago... eta eszenatokiaren okupazioa!!!

Urtero legez, Bilboko konpartseroak parrandaxoa botetako bildu ginen.

Jaiki-ren itzalpean ospatutako jaiaren kronika darotsuegu. Noski, gauza batzuk denboraren (eta pattarraren) eraginez aldatuta edota itxuraldatuta dagoz.

HAU PINTXO HAU errezeta gozo-gozoa

Pintxoaren osagaiak:

· 12 piper gorri (pikilokoak) · 2 edo 3 kipulatxo · 700 g. zizak · 300 g. hirugiharra xehatuta · 400 ml. esnegaia · 50 g. rokefort gazta · 300 g. lau gazten nahasketa xehatuta · Oliba olio · Ardo zuria · Gatza · Perrexila xehatuta · Txapata ogia

Lehenengo, kipulatxoak eta zizak txikitu behar dira, kipulatxoak zati txikietan eta zizak zati pixka bat handiagoetan. Kipulatxo txikituak olioan suezitu behar dira, kolorea hartzen utzi gabe. Orduan, ziza txikituak bota behar dira eta kipulatxoarekin nahastu. 20 minutu inguru su motelean pixkanaka-

pixkanaka egiten utzi behar dira. Ondoren, hirugiharra gehitzen da, eta ardo zuri pixka bat. Dena eginda dagoenean, erretiratu behar da.

Esnegaina berotzen jarriko dugu zartagin batean. Bero dagoenean, rokefort eta lau gazten nahasketa botako dugu. Gazta ondo urturik dagoenean, aurretik prestatu dugunarekin nahastu egingo dugu. Suan jarriko dugu piskatxo bat, eta dastatu ondoren, beharrezkoa den gatza botako dugu. Guzti honekin piperrak beteko ditugu, eta hozten utziko ditugu.

Piper bete bakoitza ogi xerra baten gainean jarriko dugu, eta perrexil pixka bat botako diogu dekoratzeko.





Hau Pittu Hau-k pintxo lehiaketan bigarren postua lortu zuen

HAU ASTELEHEN HAU!



Bilboko Jaietan astelehenak beti izan du kolore morea, baina aurten Hau Pittu Hau-k sortutako giroa apartekoa izan zen.



Astrabu, Kanpi, Kike, Osoitz eta Txominek «zipotronik» taldearen kantaz irabazi zuten Play Backa. Gero Bertso Triki Kalejiran beste motatako musikaz giro ona ere sortu zuen Hau Pittu hauk

Aste Nagusiak ez dauka astelehen aspergarririk

Apartekoak izan ziren ere barraskilo-eguna den astelehen hau ospatzeko antolatutako ekitaldiak: Marijaiarekin Indautxutik poteoa, bazkaria, sariak, play back-a, bertso-trikikalejira, gaueko erromeria eta aurten asteleheneko jaun eta jabe izandako Hau Zorabio Hau jokoa. Marea moreak, arrain hori batzuekin batera, jaigunea hankaz gora jarri zuen joko madarikatu horren ondorioz.

Jokoa bukatu ostean, nekea, barreak, bitxikeriak, irabazleen poza eta "tongo" hitza.

Amagoia, bere taldea bigarren postua lortu zuenez, epaimahaiak erabakitakoarekin ez zegoen ados. "Gu irabazleak gara, bete ez dugun froga bakarra beteezina zelako eta azken momentuan beste froga bat asmatu duzuelako. Hau "tongo" hutsa da" esan zien epaileei. Eta arrazoia zeukan. Azken unean beste froga bat asmatu behar izan zen, gure Amagoia maiteak epaimahaiak prestatutako froga bat zaramara bota zuelako.

"Tongo" hitza Kanpik ere aipatu zuen, nork eta berak,

froga bat betetzeko beharrezkoa zen materiala lapurtu zuenak. Hori ez da "tongo", mutil, hori azpijokoa da. Baina Kanpi ez zen izan azpijale bakarra. Inñigok manifestuaren aldeko mahaitik sinaduraz beteta zegoen orrialde bat hartu zuen. PJ-ak Ibaizabaleko katxi bete ur ekarri beharrean, putzu batean hartutako ura ekarri zuen. Antolakuntzak, datorren urterako, taldeak zintzoagoak izatea espero du, eta Lurdes ez duela Satorraken maskotatzat onartuko argi eta garbi utzi nahi du.



Dena ez zen parranda izan, Arkaitz Estiballesekin bertsotan ikasi genuen

“Olentzero ikusi nahi dut, Olentzero ikusi nahi dut” Aitortxu gizajoa txoratuta zebilen “por los insustanciales de ayuntamiento”, eta ez zen gutxiagorako. Abuztuaren 14a eta Mari Jaia Bilbon?. Turismoari eta Hotelei laguntzeko Aste Nagusia aurreratu zen baina horrek ez gintuen ikaratu. Hona hemen egun horietan bizi izan genuenaren laburpentxo bat, hau da, gure konpartaren 17 urteetako historiaren beste lerrotxo bat.”

14-a EDO 21-a, TURISMOA EDO JAIA

Ezin da ukatu Bilbok zerbait berezia baduela, hemen usadio zaharrei ez zaie kasu handirik egiten, batez ere etekin ekonomikoak tartean baldin badaude. Esaten zuen ba Oskorrik “Bizkaiko aberatsak dira diruzale ...”, eta egia da, Santotomasak egunez aldatu ostean Aste Nagusia ere aldatu zuten. Dena den ez dago Bilboko Konpartsak, eta are gutxiago Hau Pittu Hau, kikitzerik eta Udalak botatako Hordagori ekin genion.

14an txupinazoa eta 21ean ere bai, bietan pregoia, bietan txupina, bietan txosnen irekiera eta bietan giro ona, irina eta arrautzen astun horiek kenduta. 21 jaiaren hasiera data moduan aldarrikatzeko iragarki oso polita egin zen, non Aitortxu

izeneko Bilbotar umetxo bat guztiz galduta zebilen Abuztuaren Olentzero ikusi nahi zuela esanez.

Hau Pittu Hau ren aldetik, azkeneko Aste Nagusirik politena eduki dugu. Txosnaren dekorazioa benetan aipatzekoa izan zen. Gogora dezagun hainbeste jende aho zabalik utzi zuen “Guernica”. Ideia oso polita izan zen eta lan handia eman zuen behar zen moduan gauzatu ahal izateko, baina emaitza ikusgarria izan zen. Dena den, jakingo duzuen moduan txosna ez da guk gehien lantzen duguna, ekitaldiak eta giroa baizik.

Arlo horretan aurrera egin

Santotomasak egunez aldatu ostean Aste Nagusia ere aldatu zuten.

dugu nabarmen, Euskaltegia, Bertso Ikastaroa, Argazki Lehiaketa, Dantza ikastaroa, Go

txapelketa, Ur Eguna, Herri Kirolak, Bertsotrikikalejira, Bazkariak, Konpartsero sariak, Play back txapelketa, Krossa, Euskara Saria, Ginkana. Egia esateko labur

gelditzen zaigu Aste Nagusi osoa burutzen diren ekitaldi guztietarako eta denetan Hau Pittu Hau egon da jaiak euskaraz bizitzen.

Dena den ez pentsa parrandarako eta gauaz disfrutatzeke aukerarik ez dugula izan. Urtero moduan gauak






Idoia, zergaitik kanporatu gintuzten sokatiratik?

ematen dituen bitxikeriak izaten dira jaiaren piperra, Astraburen dantzaldiak barra gainean, Mijiren lagun australiarren harridurako, Monika, Peru eta Pitturen camiseta trukaketa, edo hortik lapurtu zuten kuadrotxoa. Pako gizajoak ea Aste Nagusia osoa galdu zuen orkatila okertu zuelako. Urtero moduan txupinazo egunean (aurten bi) ikusi ziren mozkorra dirik handienak baina astelehena izan zen Aste Nagusi osoko egunik politena.

Bukatzeko auzokideetaz apur bat gogoratu behar. A ur ten nahiko formal ibili gara eta Satorrak-egin diogun gauzatxoren bat kenduta (atea panel batez estali), ez dugu bihurrikeriarik

burutu. Zahartzen hasi gara edo sabelagatik irabazten ari zaizkigu Satorrak-kideak?, ez dakit baina ederto ematen dute bazkaltzen eta afaltzen. Beno Pitxujos, ea datorren urtean gutxienez aurten bezain ondo moldatzen garen. Eskerrik asko denoi.

Urtero moduan gauak ematen dituen bitxikeriak izaten dira jaiaren piperra



Arraunketan, urtero moduan, antolatzaile onak baina arraunlari kaxkarrak

BILBOA BA DAGO EUSKARAZ BIZITZERIK.....

BA DAGO INAUTERETAN EUSKARAZ PARIE HARTZERIK

BA DAGO ASTE NAGUSIA EUSKARAZ GOZATZERIK


BA DAGO SANTO TOMASAK EUSKARAZ EZAGUITZERIK


HAU PITU HAU REKIN


www.haupittuhau.org

IZENA EMAN HAU PITU HAU-n, haupittuhau@haupittuhau.org ra mezu bat bidaliz.









Barrazkilo Bihotza hemen dago, konpartsari haize berria ekarriko dion guztiontzako sekzio objektibo eta guztiz fidagarria (zin dagizuegu). Hala ere, kontuz ibili! Barrazkiloa kamaraz armaturik dago Euskal Herriko jaietatik...

barrazkil♥ bihotza



Astrabu in love!

Aurten konpartsakideak oso ondo portatu dira (poztu! Olentzerok opari asko ekarriko dizkizue!): konpartsa barruko harremanak sendotzeaz gain (zorionak Joseba...), konpartsarteko eta nazioarteko harremanak ere sendotu dituzte (ez denek, ezta Kanpi?). Dena den, barrazkiloa ez da , eta oraingoaz, guztiok ezagutzen dugun beri bat azpimarratu nahi du (oraindik ez badakizu, Aste Nagusian oso mozkor zeunden): **PILLATU DU!** (eta nik zergatik ez?), eta zurumurruen arabera neska bat baino gehiagorekin egon omen da. Ez dakigu zein argazki *pille-moment* edo txandalarien aurpegiak (eh? Jimi, Kike...). Zorionez, Kikek erreakzionatu zuen, eta berari esker denok goza dezakegu momentu hartaz. Eskerrik

BIHOTZAREN GAUZAK...

- ♥ Badirudi maitasuna gorri-gorian dagoela konpartsan, zorionak zuen ezkontza berriengatik LOREA eta JORDI. Besteok, ikasi.
 - ♥ Ikasi duena IURGI da, eta azkenean datorren Aste Nagusiko astelehenean ezkonduko da ITZIrekin, denok gonbidatuta!!! (menua: makarroiak tomate eta txorizorekin). A! Neska behar da "ezkongabe agurrerako" (mutila badago, eta lekukoak daude.
 - ♥ Aitortuko ote dio PIRRIKIK azkenik bere maitasuna PITTURI? Agian azkenean ezkontza bikoitza izango dogu. Eta datorren alean gehiago! (maitale izkutuak...)
- barrazkilo_bihotza@euskalherria.org

mendeku txikiak

Lainoan sustrai sendoak bizitzaren iturburu euriaren aiduru gauaren urrats geldoak.

Jaio herabe, lotsakor beroa, lurra, zaindari basoetan aitzandari eskuzabal, zu, emankor.

Ama naturaren hitza bere magalean, hezea ortziaren neuritza gerokoaren fedea betikotasuna, bizitza eki, odola, lorea.

- 1.- ENEKO: Erabaki behingoz: Edo espainola edo gipuxia, ez dakit nor den
- 2.- NORA: Zelan explotatzen duzun zure nobio gixajoa. Malagatik ekarri zintuen.
- 3.- AIZU, txikitxu hori: ez du balio kutxa ermetikoak egin eta gero kristolako zuloa jarri! Euskadiko Ikonoklastak.
- 4.- EDORTA: non zaude? Zure jaka magikoa behar dugu. Gora 80. Hamarkada.
- 5.- LEIRE: bidali Miji popatik hartzera! Gu libre gaude eta bero, bero...
- 6.- ENEKO: Satorrakeko tangak zure zain daude. Jarri txapela!
- 7.- ASTRABU: asteleheneko bazkarian hasi dantzan eta euria dantzan.
- 8.- MAITIA: urteak joan eta ezin dot zure alboan egoten nazen bakoitzian Batirtze ikustean, zelozkortasuna ezin kontrolau.

Zure tripa gizen horrek eta zure berba lirainak benetan eszitatzen nauela. GABI, atara armairutik behin betikoz. Zure panderopak eta nire txistuak zelako erromeria eingo luketen. Maite zaituen


"*Mear aki también es agresión*" argi eta garbi geratzeko / Mamikikoek izandako oso ideia on / Pittuk haien txosnan txisa ez egiteko.

10.- Euria da, akabo zuon bazkaria barrukoan lanean besteek buzi- buztita.

11.-ZORIONAK IURGI, zure ezkontzan makarroiak nahi ditugu.

12.- KANPI, Gogorregikoa ematen duzu

13.- Koldo eta Bea muxu gutxiago eta lan gehiago. Enpalagoso hutsak zarete.



ZORIONAK ALA ZORITXARRAK

Euskara saria. Sari honekin, Hau Pittu Hau-k euskararen aldeko jarrerak eta ekimenak saritu nahi ditu. Aurten ohore hau Gernikako Euskal Herrian Euskarazeko Pernanek jaso zuen, Gernikako epaitegi erdalduna euskalduntzeko daramaten borrokagatik.

Langileena saria. Pakok, urtean zehar lan eta lan ibili ostean eta konpartsaren esker ona irabazi eta gero, atsedendia hartzea erabaki zuen apurtutako orkatilaren aitzakia erabiliz. Pako, ez duzu uste estres-baja hartzea errazagoa zela?

Parranderoena saria. Astrabuk sari hau zergatik irabazi zuen argi eta garbi dago. Ez da erreza aurten gure konpartsakideak egin zuena. Gauzez parrandan joateaz gain, goizez Euskaltegian irakasle zintzoa izan zen eta.

Txandalaririk txarrena saria. Ez dakigu merezita ala ez, baina aurten konpartsaren ustez txandalaririk txarrena Edorta izan zen. Bertso bat bota eta gero, pozez beterik hartu zuen bere saria Pakoren eskuetatik

Ostia txarra saria. Pakok nor irabazi zuen jakinarazi baino lehen, guztiok irabazlearen izena zein zen bagenekien. Kanpi, zer egin dizu Picassoren "Guernica" koadroko andrak gizajoari ostia txarreko begirada hori botatzeko?

Beti euskaraz saria. Nahiz eta sari hau jaso, Gabi oso pozik ez zegoela ematen zuen. Erdararik hartutako "bokata" hitzarekin zer demontre esan nahi genuen bere buruari galdezka ote zebilen?

Konpartsakide berria saria. Sari hau Oier eta Enekoren artean egon zen. Azkenean, nagusiak

irabazi zuen. Lasai Oier, zeure burua Enekoren eskuetan jartzen baduzu, laster sariren bat irabaziko duzu.





Asanbladak Aste Nagusia aztertzen du.

Aste Nagusia bukatu da. Hurrengo jaiak gozatzeko atzeranzko kontaketa hasi da, eta Hau Pittu Hauk azken asanbladan balorazioa egin ondoren erabaki batzuk hartu zituen. Orokorrean konpartsa euskararen aldeko lanean erlaxatu egin dela esan daiteke, eta horrexegatik, guztiok Bilboko jaietan euskararen presentzia indartzeko ahaleginak egingo ditugu. Euskaraz gain, beste gai interesgarriak ukitu dira. Hona hemen laburpentxo bat.



EKINTZA BATZORDEA

Txupinazoan irinaren eta arrautzen aurkako jarrera hartu dugu. Gure kamiseta jantzita eramaten duenak ezin izango du ez irina ez arrautzik bota. Gero eta ekitaldi gehiago antolatzen ditugunez, eta ekitaldi guztien antolaketa konpartsakide berdinen gainean ez erortzeko, gutxienez ekitaldi batean parte hartzea derrigorrezkoa izango da

SUKALDEA

Komenigarria izango litzateke goizeko txandetan ogitartekoen osagaiak prestatzen laguntzea. Gainera, egunez norbaitek sukaldea erabiltzen badu, gero garbitu behar du. Sukaldea mekanotutuekin ondo gelditzea zaila denez inbertsioa egingo dugu hozkailua, plantxak eta mahaia erosteko



MUNTAIA

Jende gehiago behar da muntaiari eta desmuntaiari. Garrantzitsua da jendea laguntzen etortzea, nahiz eta ordu gutxi izan. Honela, egun osoz daudenak ez dira hainbeste nekatzen. Satorrakekin batera egiten duguna guk ere margotu behar dugu.



TXANDAK

Datorren urtean txandetako egitura berria edukiko dugu. Lehenengo txanda 7:00etatik 14:00etara izango da, bigarrena 14:00etatik 20:00etara, hirugarrena 20:00etatik goizeko 2:00etara eta azken txandalariak poteak zerbitzatzen edo dantzatzen egongo dira 2:00etatik 7:00etara, dagoen lanaren arabera.



TXOKO ETA KOMUNA


Azken urteetako araua beteezina dela ikusita, datorren urtean komuna konpartsakideentzat zabalik egongo da. Txandako arduradunak atea kontrolatuko du. Horretaz gain, txosnaren atzeko aldean txoko bat ipiniko dugu. Txokoa txosnatik guztiz bereiztuta egongo da, bakoitzak bere atearekin. Hori dela eta, Iñigok txoko berria «bunker» izendatu zuen; baina lasai Miji, hau baino handiagoa izatea espero dugu.

EUSKO PIZZA, EUSKO TXINATAR BAINO HOBEAGOA

Urtero moduan Aste Nagusiko balantzea egin genuen, eta balantzearekin batera, ohikoa den afaria. Asanblada oso luzea izan zen arren, ia lau ordu, ez genituen gai guztiak eztabaidatu.

Beranduago etorri zen alde ludikoa are emankorragoa izan zen. Txoko bat utzi baziguten ere, ez zegoenez sukaldea erabiltzerik, Eusko Pizzari eskatu behar izan genion afaritxoa. Ez zen izan Arzak edo Subijanaren parekoa baina ondo afaldu genuen.

Afariaren ostean argazki txapelketaren sariak banatu genituen, zorionak Kike eta Txomini. Honen ostean Uribarriko jaietara abiatu ginen non Parabellum zaharren eta gazteen gozamenerako jotzen zebilen (batez ere zaharren gozamerako). Han bukatu zen jai eta lan egun hori, gainera guri gustatzen zaigun moduan, goizalderarte txosnen artean sartuta.



"Jebiak garete".

Mila hitz baino gehiago balio dutenak

Badakizue urtero konpartsak
antolatzen duela argazki lehiaketa.

Hona hemen bi argazki irabazleak.
Goza itzazue!



"Irinatako itsasoan murgilduta". Txomin da egilea (?)

ESAERA ZAHARRAK

Uribarriko esaera
zaharren lehiaketan
hirugarrenak

Uribarriko jai batzordeak,
Bilbotar auzo honetako jaietan
euskararen presentzia bultzat-
zeko asmoz, esaera zaharren
bigarren lehiaketa antolatu
zuen.

Aurten, iaz bezala, Hau Pittu
Hauk parte hartu zuen eta
hirugarren postua lortu zuen.
Iñigo, Pako, Peru eta Pittuk
osatzen zuten taldea joan den
urtean lortutako garaipena
berdintzeko gai ez zen izan.

Baina, nahiz eta aurrean bi
talde indartsu eduki, azken
unera arte irabazteko aukera
eduki zuten.

PORRONTXOAK

Gora
Porrontxoak,
gora!

HPHren izenean ondokoak
joan ginen Egiara: Astrabu,
Kamele, Joxemi, Idoia, Marta
eta Peru. Lehenengo hirurak
goizetik joan ginen, eta
besteak arratsaldean.

Goizeko poteoa eta gero,
ezkontza punkia egin zen.
Ederra! Eta horren ostean,
bazkaria. Hor bilbotarroi
omenalditxoak egin ziguten, eta
hiruroi jaietako zapi bana
oparitu ziguten.

Esperientzia aberasgarri
izan zen, beste jai herrikoiak
ezagutzeko aukera izan
genuelako. Ea hemendik
aurrera harremana mantendu
eta sendotzen dugun!